



ETXEKO HONDAKINEN BILKETA

10 KONPROMISO



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

Herritarrek eskubide dituzten zerbitzuak eta kalitate-konpromisoak ezagutarazten dituzte zerbitzuen kartek, eta, hartara, herritar horiek laguntzea eta parte hartzea bultzatzen dute.

Iruñerriko Mankomunitatea
50 udalerrik osatzen duten tokiko erakundea da, eta uraren ziklo integralaren zerbitzua, etxebizitzetako hondakinena, eskualdeko hiri-garraioarena, taxiarena eta eskualdeko ibai-parkearena kudeatzen ditu. Zerbitzu horiek 380.000 biztanleri baino gehiagori ematen zaizkie, eta helburua, betiere, haien premiak eta itxaropenak ahalik eta gehiena betetzea da.



EMATEN DIREN BILKETA-ZERBITZUAK

- Bilketa orokorra edukiontzien bidez: gai organikoak, ontziak, papera-kartoia, beira eta gainerakoak edo errefusa.
- Bilketa pneumatikoa: gai organikoak, ontziak, papera eta gainerakoak edo errefusa.
- Atez ateko bilketa: altzariak eta puskak. Iruñeko Alde Zaharrean: beira, kartoia eta gai organikoak.
- Hondakin bereziak garbiguneetan biltzea: 3 finko eta 4 mugikor.
- Elikagaien eta sukaldeko olioaren bilketa supermerkatuetan.
- Etxeko animalia hilen bilketa eta/edo hartzea.
- Edukiontzien garbiketa eta mantenimendua.

LEGEZKO ARAUDIA

- Indarrean dagoen hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko legea.
- 11/1997 Legea, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa, eta 252/2006 Errege Dekretua, 11/1997 Legean ezarritako birziklatze- eta balioztatze-helburuak berrikusten dituena.
- Hondakinen gaineko plan nazionala eta autonomietakoa.
- Etxeko hondakinak kudeatzea arautzen duen ordenantza.
- Hondakinak kudeatzeagatiko ondare-prestazioen ordenantza.



1

**EDUKIONTZIETAN ETA
BUZOIETAN BILTZEA**

Etxebizitzen atariaren eta edukiontziak eta buzoiak kokatuta dauden gunearen arteko distantzia hau izango da:

- 80 metro baino laburragoa, etxebizitzen sailak dauden tokietan, etxebizitzen %95en kasuan.
- 120 metro baino laburragoa etxebizitza familia-bakarrak dauden tokietan, etxebizitzen %85en kasuan.

2

Beteta ez dagoelako edukiontzi edo buzoi egokian hondakinak bota ahal izatea ontzat edo oso ontzat joko duten pertsonen portzentajea %85 baino handiagoa izango da gai organikoen, ontzien, paperaren, beiraren eta gainerakoien edukiontzien kasuan. Horretarako, beharrezko jotzen den edukiontzi-kopurua kokatuko da, biztanleria-dentsitatearen ezaugarrien, edukiontzi-motaren eta bilketa-motaren arabera.

3

Edukiontziak eta buzoiak garbi egongo dira. Horretarako, edukiontzi eta buzoi bakoitzaren barnealdea eta kanpoaldea garbituko dira. Gai organikoen kasuan, gutxienez, urtean 5 alditan egingo da, eta gainerakoien kasuan, 4tan, kasuen %90etan.

4

Ekintzak gauzatuko dira **edukiontzietatik kanpo hondakinak egotea ekiditeko**.

5

Bilketa-zerbitzuaren ingurumen-inpaktua minimizatu da. Horretarako, ibilgailuak progresiboki ordeztuko dira gutxiago kutsatzen duten beste batzuekin.

6

ATEZ ATEKO BILKETA ETXEBIZITZETAN

Atez ate biltzeko zerbitzuaren eskaera urteko egun guztietan jasoko da:

- **Telefono bidezko arreta pertsonala emanda**, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan, 08:00etatik 14:00etara.
- **Erantzungailu automatiko, posta elektronikoa eta webgunearen bidez:** eguneko gainerako orduetan, barne hartuta igandeak eta jaiegunak.

7

Atez ate biltzeko zerbitzua eskatu eta hori gauzatu bitarteko **gehieneko epea** hau izango da, baldin eta ez bada beste zerbaite hitzartzen eskatu duen pertsonarekin, kasuen %90etan:

- **Hiri-eremuan:** 2 lanegun edo 3 egun natural.
- **Landa-eremuan:** 10 egun natural.

8

GARBIGUNEAK

Etxeko hondakin bereziak biltzeko, **hiru garbigune finkoak** astelehena eta larunbata bitartean egoten dira irekita, 08:15 eta 22:00 artean. **Lau garbigune mugikorak**, gutxienez, Iruñerriko 38 tokitara joaten dira astean, goizeko eta arratsaldeko txandetan. Eta **16 garbigune txiki** daude, hondakinak eguneko 24 orduetan bota ahal izateko.

9

ERREKLAMAZIOEI ERANTZUTEA

Jasotzen diren erreklamazio guztiak aintzat hartu eta erantzungo dira. Bilketa-zerbitzuaren gabezia arrunt hauei dagozkienak ezarritako epean erantzungo dira, gutxienez, kasuen %90etan:

- Edukiontzi betea: 2 egun.
- Arazoak, elektronikoki zabaltzen diren edukiontzietan: 2 egun.
- Gaizki edo hondatuta dauden edukiontziak: 5 egun.
- Poltsak utzita egotea edukiontzitik kanpo: egun 1.
- Tamaina handikoak egotea edukiontzien ondoan: 2 egun.
- Usain txarra dariola edo zikin egotea: 3 egun.

10

INFORMAZIOA / ERRAZTEA

Erakundearen webgunean eguneratuta edukiko da etxebizitzetako hondakinei buruzko **intereseko informazioa**, hondakinak gutxitzeko, gaika bereizteko eta konpostajea egiteko aholkuak.

Herritarren Arretarako Zerbitzua

Navas de Tolosa kalea, 29, behealdea

ORDUTEGIA

astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era.

(Aurretiko hitzordua behar da)



948 423 242



www.mcp.es

Egoitza Elektronikoa

Izapide bati buruzko edozein zalantza argitzeko, komenigarria da aurretik webgunea kontsultatzea edo telefonoz deitzea, hartara, kudeaketa arintzeko eta beharrezkoa ez den joan-etorririk ez egiteko.



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

Servicios de la
Comarca de Pamplona s.a.
Iruñerriko
Zerbitzuak e.a.